

KANALAK

Gure produktua bezeroengana ailegatzeko, 3 jarduera edo hobeto esanda, 3 bide hartuko ditugu:

- 1. Interneten bidez informazio guztia emango diogu gure bezeroei (ezagutzera emateko/ komunikazio kanala bezala erabiliko dugu interneta), ahalik eta informatuen egoteko (gure webgune orrian kontaktatu ahal dute gurekin). Horrekin batera, gure web orrian, kanalen informazio guztia egongo da (Nola erosi ahal dute gure produktua, bidaltzen badiogu ala ez...). Gure ustez, interneta da gure bezeroekin harreman ona izateko baliabiderik hoberena.
- 2. (Banaketa kanala) Bezeroek Produktua erosiz gero, gure produktua, noski, bezeroengana ailegatu behar da, eta horretarako, gure zerbitzu propioa izango dugu euritakoa haiengana ailegatzeko. **NOLA FUNZIONATZEN DU ZERBITZU HORREK?** Gure dendan, 2 kamioi izango ditugu gure izenarekin, eta haien bidez, txakurrentzako euritakoak bertan sartuko ditugu kutxetan izena, telefono zenbakia, DNla eta helbidearekin, eta gidari bat kontratatuko dugu bere soldatarekin, euritakoak eramateko.
- 3. Propaganda edo publizitatea (Komunikazio kanala): Gure produktua ahalik eta mundu guztira zabaltzeko, publizitate kanpainak egingo ditugu interneten bidez eta kartelak kalean itsatsiz. Gure produktua asko zabaltzen bada, agian anuntzio bat egin ahal dezakegu diru kantitate bat ordainduz. Gure produktua, fisikoki edo internetez salduko dugu, eta internetez erosten bada, bezeroek eranahi ahal dute diseinua eta tamaina

Dakigunez, kanalak atala, bezeroarekiko harreman-guneak dira, eta 5 fasez osatuta dago: Pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta ondorengoa. Fase hauek ondo betetzeko, erosketa ongi ateratzeko ahalik eta baliabide hoberenak erabiliko ditugu (lehen esan dugun bezala, internet), entrega ahalik eta modu erosoenean egingo dugu eta produktua kontsumitzaileari ailegatuz gero, salmenta ondorengo tratua, ahalik eta hoberena izango da; horretarako, bezeroari ahal den kasuetan, aterkia konponduko diogu eta deskontuak egingo dizkiogu.

